

FAMILIA ARTEAN

KONEXIOA

SAIOA 7 URRATSETAN

1. AURKEZPENA
2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK
3. BIZIPENA
4. JAINKOARI ENTZUN
5. ALKARRIZKETAN JARDUN
6. OTOITZEAN ADIERAZO
7. ETXERA EROAN...



1. AURKEZPENA

Bai Internetek eta bai sare sozialek familia bizitzan sorrarazi daben zirraren eta askotan eragiten daben zantzua eta nahasketaren inguruan hausnartu gurako geunke saio honetan. “Benetan, zelan eragiten deuskue?”, galderari erantzuten saiatuko gara eta, gure bizitzetarako aldaketa positiboa izan dala autortuta, ia arriskurik dakarren ala ez aztertuko dogu.

Gitxitan izaten dogu galdera horreen inguruan pentsatzeko aukerarik. Bizitzaren eraldian sartuta gagoz betebetan; beti arineketan alde batetik bestera, eta ez dogu astirik hartzen, gainera etorri jakun eta, gu konturatu barik, gure bizitzak aldatzen ari dan mundu digitalari buruz hausnartzeko.

Sekula baino erraztasun gehiago dogu hartu-emonetarako, baina, benetan, hartu-emon gehiago ete dogu? Behar dan etekin guztia ataraten ete deusagu Internetek eta sare sozialek eskaintzen deuskuenari ala bitarteko horreen menpe ete gagoz?

Internet eta sare sozialen erabilera onuragarriko erispideak jadestea da “**WIFI konexioa**” deitutako saio honen helburua. Familian ikusi eta hausnartu zertan datzan guzti horrek, ze laguntza emoten dauan eguneroko bizitzan eta zelan atara daikegun onena, bat egiteko abagune eta Jainkoaren maitasun irekian partaide izateko aukera bihurtu daiten.



HASIERAKO DINAMIKA

1. Txartel hau banatuko dogu eta bertan izena jarriko dabe; tweet batean (140 karaktere), Internetek eta sare sozialek eurentzat zer esan gura daben idatziko dabe.
2. Batuta gagozan lekuan, hara eta hona ibiliko gara txartelagaz, izena eta idatzi dogun tweeka esanez.
3. Azkenean, gure tweekagaz antz gehiago daben personakaz alkatuko gara. Gero, batera jarriko dogu.

2. EGUNEROKO BIZITZAKO SINBOLOAK

ZER DA WIFIA?

ZER ADIERAZOTEN DAU ETA ZERTARAKO BALIO DAU?



WIFI (WIRELESS FIDELITY)

MEKANISMO HONEN BITARTEZ, HARIRIK BAKO KONEXINOAGAZ, INTERNETEN SARTU DAITEKE, ETA BAITA SA-REEN SARE HANDIAN BE, HAINBAT GAILUTATIK.



3. BIZIPENA



Internet eta sare sozialak zelan erabilten doguzan jasoko dauan mapa egingo dogu jarduera honetan. Bide batez, gure "WIFI PARTIKULARRA" zelan erabilten dogun erakutsiko dogu:

- Zeri emoten deusagun garrantzia eta zeri ez.
- Ze onura eta arrisku dauan, gizabanako (heldu eta ume) lez eta familia lez.
- Kristau familia izanda, ze aukera eskaintzen deusku geure egitasmoan?

Emaitzak zera jakinarazoko deusku:

- Zer dan guretzat konektatuta egotea.
- Zer itzi beharko geunken.
- Zertan lagunduko deuskun familia lez.
- Kristau lez, alkartean, zer aprobetxatu daikgun.

Horretarako, eranskinean jasoten diran 'app'en artean, geure wifi pertsonala osatzen dabena aukeratuko doguz, ezagutzen doguzan ikonoak moztuz eta gure mapako (hurrengo orrialdea) puntu gorrietan itsatsiz gaiaren arabera bakotxari dagokion arloan (esate baterako, YOUTUBE erabilten badot, ikono hau zinea-telesailak puntuaren gainean ipiniko dot). Geure WIFI MAPA PERTSONALA osatu eta gero, ikono horreetako bakotxak gure eguneroko bizitzan ze garrantzi/erabilera maila dauan baloratuko dogu, 'emojiez' baliatuz.



WIFI MAPA PERTSONALA



GARRANTZI/ERABILERA MAILA



ASKO – EGUNERO



NOIZEAN BEHIN



OSO GITXI
NOIZ BE EZ DAKIT

HAUSNARKETA – ALKARRIZKETA

- Ze alde dago Interneten erabileran gure familian?
- Familia lez, batu egiten gaitu ala alkarrengandik aldendu?
- Antzematen ete dogu arriskurik seme-alabentzat edo familiarentzat?
- Ikusten ete dogu aukerarik Interneten guraso lez, gure seme-alaben hezkuntzan edo kristau familia lez hazteko?

4. JAINKOARI ENTZUN

I. gizaldian idatzi zan Ebanjelioan ez dira ez Internet ez sare sozialak aitatu be egiten. Ulergarria da. Nazareteko Jesusen sasoian ez egoan Internetik baina baeukiezan sareak hartu-emonerako. Hainbat pasartetan esaten jaku Jesusi dei egiten deutsela, mandatua igorri deutsela, norabait joateko esaten deutsela... Berba bat da jaso gura dabena, baina Jesusek honan erantzuten deutse: hurbilduz, ikutuz, altxatzen lagunduz... (Lk 7, 2-17; Lk 8, 40-56). Hausnartu eizue esan barri dogun hau.

Eleizak be badau Internet eta sare sozialei buruzko ikuspuntua. Aukeratu doguzan aita santuen mezuen txatal honeetan **“kontinente digital”** barria aitutzen da.

- *Eraldaketa handia.* “Teknologia digital barriek eraldaketa sakonak eragiten dihardue hartu-emonerako eredueta eta giza harremanetan” (2009), “hartu-emonetarako era aldatzeaz gainera, jakinarazoten dana bera aldatzen da” (2011).
- *Sare sozialek, Jainkoak gizon-emakumeentzat dauan bokazinoari erantzuten deutse.* “Beste batzuegana hurreratzeko beharizana sentitzen dogunean, besteak hobeto ezagutu eta geure burua ezagutzera emon gura dogunean, jainkozko deiari, Jainkoaren antz eta irudiko sortutako izaki izateak beragaz dakarren deiari, erantzuten dihardugu” (2009).
- *Arriskuez jabetzea:* “Familian, eguneroko bizitzan aurkitzen doguzanakaz, hartu-emon pertsonalak alde batera iztea”. “Hareekaz itsutzeak, giza garapen egokirako ezinbestekoak diran atsedean, isiltasun eta hausnarketa erritmoak be asaldatu daitez” (2009). Baina “teknologiak ez dau ebazten hartu-emon benetakoa dan ala ez, gizon-emakumearen bihotzari eta eskura dituan bitartekoak ondo erabilteko gaitasunari dagokio hori”.
- *Sareetan jokatu, herritartasuna eratu.* “Hala eta guztiz be, dei egin gura deutset kristinauei bat egin daien konfiantza eta sormen arduratsuz aro digitalak ahalbiderratu dauan hartu-emonen sareagaz, sare hau giza bizitzaren osagai dalako” (2011). “Sarean be erutzen da benetako herritartasuna. Sare digitaletan sartzeak ikusten ez dogun baina benetakoa dan eta errespetatu beharreko duintasuna dauan besteagazko erantzukizuna dakar. Sarea ondo erabili daiteke gizarte sana, bateratze-lanera irekitako gizartearen hazkundera eragiteko” (2016).
- *Lekukotasun eta iragarpenerako lekua.* “Horregaitik, mundu digitalean be, agerpenerako kristau estiloa dagoala esan daiteke, hartu-emon zintzoa, arduratsua eta besteagazko begirunetsua ezaugarri nagusizat dauan estiloa”. “Barri Ona jakinarazteak, perfil digitalean bertan eta, nahiz eta Barri Onaz beren-beregi ez hitz egin, beragaz guztiz bat datozen lehentasun, aukera eta epaiak jakinarazteko moduan, koherentziazko lekukotasuna emotea adierazoten dau” (2011).
- *Gazteak:* “Batez be zeuoi dagokizue “kontinente digital” hau ebanjelizatzea. Gogoz hartu eizue zuon adinkideei Barri Ona iragarteko ardura” (2009). “Pozgarria da giza alkartasuna, bake eta zuentasuna, giza eskubideak, biziaganako errespetua eta krezazinoaganako ontasuna suspertzen saiatzen diran sare digital barriak sortzen ikustea” (2009).

5. ALKARRIZKETAN JARDUN

“Wifi konexioa” mundu honetan, danok ez dogu abiapuntu bera. Ondorengo dinamika egingo dogu horretaz jabetzeko:

1. Danok –nagusi, txiki, gazte...- parte hartuko dogu dinamika honetan. Sustatzaileak adinaren arabera galderak prest izango ditu eta galdera bata ala bestea egingo dau, taldekideen adina kontuan hartuta.
2. Batuta gagozan gelan, 1 zenbakia ipiniko dogu hormetako batean eta, pareko horman, 10 zenbakia.
3. Sustatzaileak banan-banan egingo ditu hurrengo galderak. Eta partaideek zenbateraino datozen bat ala ez adirazoko dabe leku batean ala bestean kokatuz 1etik 10era. 1 zenbakiagaz bat ez etortea adierazoten da eta, alderantziz, 10ak guztiz bat etortea adierazoten dau.
4. Jenteak gelan bere lekua hartu dauanean, kokapen horren inguruan galdetuko dau sustatzaileak, hau da, zer dala-eta, jarri diran hor. Danek izango dabe parte hartzeko aukera.
5. Bakoitzak bere kokapenaren inguruko arrazoiak emon eta gero, zera galdetuko dau sustatzaileak: ia norbait, besteen arrazoiak entzunda, lekuz aldatuko litzatekeen. Norbait lekuz aldatzen bada, zer-gaitik egin dauan galdetuko jako.
6. Ondoren, beste galdera batzuk egingo ditu sustatzaileak, metodologia bera erabiliz.

ZENBATERAIN ZATOZ BAT JARRAIBIDE HONEEKAZ?

1. Familian hitz egiten dogu Interneten erabileraren eta arriskuen inguruan.
2. Hurrei sakelakorik ez oparitu 10 urte bete baino lehen.
3. Gurasoek ezagutu daiezala seme-alaben (lehen hezkuntzakoak) kontaktuak eta kontuen pasa-hitzak.
4. Familiako taldea sortu hartu-emonetarako.
5. Etxean, etxekoei baino arreta gehiago eskaintzen deutsegu sareei (Whatsapp, Instagram...).
6. Sakelakoa mahaian izan eta jaramon egin mezu edo jakinarazpenen bat heltzen danean.
7. Egokia da Interneten nabigatzeko arauak –erabilera eta denpora- alkarregaz alkarrizketan jardunez ezartzea.
8. Adiskideei onartzen ez deutsegun ezer ez onartu inori Interneten.
9. Badago zure datu pertsonalik sare sozialetan?
10. Zerbait egokitzen jatzunean edo sariren bat eskaintzen deusuenen, klikatu eta probatu.

6. OTOITZEAN ADIERAZO

Zelan ikusi dogu geure burua jarduera honetan? Zer daroagu? Antzeman dogu “Wifi munduaren” aukera barririk familia bizitzarako?

Interneten nabigatzeari ekin aurretik egiteko otoitza

Jesus,
gauza guztiak on egin dozuz
eta askatasuna emon deuskuzu
askatasunez hautatu zaiguzan.
Lagundu eta erakutsi Internet erabilten,
beti be zeure jarraitzaile lez jokatu daidan:
webari eskainitako aldia zeure aintzarako izan daitela;
nire begiek zeuk ikusiko zeunkena ikusi daiela;
ez daidala sekula ahaztu
pantaila bakotxaren atzean nire anai-arrebak dagozana.
Giro digitalean nigaz hartu-emonean jarten diranei
Zu egoki ezaguarazoteko gauza izan naitela,
hareek zu gehiago maitatu zaieezan.
Argitu eta neurtu nire hitzak
epaitzean, azaltzean eta aholku emotean,
besteen bihotzetan zure mezuaren poztasuna
itzi ahal izateko.
Internetetik ataratean,
ez daidala ez buruan ez bihotzean
Zugandik urrunduko nauan ezer gorde.
Jesus, grabatu nire bihotzean,
Zu barik betiereko fruturik jadestea ezinezkoa dala,
eta dana zure alde eta zure Erreinuaren alde
eginez eta emonez,
bardin dala asko edo gutxi egitea,
Zeuk esku hartzen dozulako isilean
eta gure jarraitzaile izatea bedeinkatu egiten dozulako.
Amen.



7. ETXERA EROAN...

Familiaka batuko gara eta kide bakotxak ‘hashtag’ bat idatziko dau goiko irudian, saiotik zer nabarmentzen dauan adierazoz. Ondoren, familiako kide guztion artean, familia lez identifikatuko gaituan ‘hashtag’ bat aukeratuko dogu. Etxera eroan eta hozkailuan ipiniko dogu iman bategaz, bizi izandakoa gogoratzeko